# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Foru Aginduak*

### TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**3997**

**299/2011 FORU AGINDUA, ekainaren 16koa. Horren bidez, behin betiko onartzen da Zigoitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea; hain zuzen ere, Ondategiko 2 poligonoko 915 lurzatiari buruzkoa.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2011ko otsailaren 3an, Zigoitiko Udalak hasierako onarpena ematea erabaki zuen indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioen aipatutako aldaketari; baita espediente hori hilabete jendaurrean jartzea ere, eta horren berri eman zen iragarki bana argitaratuta 2011ko martxoaren 7ko ALHAOn (28 zk.) eta 2011ko martxoaren 7ko El Correo egunkarian. Gainera, udaleko iragarki taulan eta udalerriko kontzejuen administrazio batzarretako iragarki tauletan ere iragarkiak egon ziren ikusgai 2011ko martxoaren 1etik apirilaren 11ra arte.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldian, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak behin-behineko onarpena eman zion espedienteari, 2011ko maiatzaren 5eko bilkuran.

Hirugarrena.- Zigoitiko Udalak Arabako Foru Aldundiari espedientea bidali zion (sarrera eguna: 2011ko maiatzaren 25a), hala bazegokion, behin betiko onar zezan.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Aldaketa Ondategiko Kontzejuaren Administrazio Batzarrak sustatu eta Udalak izapidetu du. Horren xedea da administrazio batzar horrena den Ondategiko hiri lurzoruko 2 poligonoko 915 lurzatiaren kalifikazio xehatua aldatzea, hau da, bizitegitarako erabilera izateari utzi eta komunitate ekipamendurako tokiko sistemaren kalifikazioa izatea.

Bigarrena.- Proposamenaren arrazoia hauxe da: bertan dagoen eraikina kontzeju etxe eta gizarte etxe bezala erabiltzen da, hots, administrazio eta kultura ekipamendu bezala. Hori dela eta, eraikinen egungo irisgarritasun baldintzak egokitu egin behar dira Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretuak xedatutakora. Aitzitik, hori ezinezkoa da egungo ordenantzan jasotako eraikuntza parametroen arabera.

Hirugarrena.- Lurzatia benetako erabilerei egokitzeak eta, hornikuntza beharrizan berriei zein indarreko irisgarritasun araudiari egokitze aldera, eraikina berritzeko baimena emateak zehapen positiboa merezi du.

Laugarrena.- Espedienteak barnean hartutako eremuaren antolamendu xehatua aldatu baino ez du egiten, eta Lurzoruari eta Hrigintzari buruzko 2/2006 Legeak 95. eta 96. artikuluetan eta lege hori bera garatzeko emandako premiazko neurriei buruzko 105/2008 Dekretuak 30. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT

Lehehengoa.- Behin betiko onartzea Zigoitiko udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketaren espedientea; hain zuzen ere, Ondategiko 2 poligonoko 915 lurzatiari buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Beraz, norberaren interesen alde egiteko abiarazi ahal den beste edozein neurriz gain, ondoko errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira:

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**3997**

**ORDEN FORAL 299/2011, de 16 de junio, de aprobación definitiva del expediente de modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, referida a la parcela 915 del polígono 2 de Ondategi.**

ANTECEDENTES

Primero.- Con fecha 3 de febrero de 2011, el Ayuntamiento de Zigoitia acordó aprobar inicialmente la modificación de referencia de las Normas Subsidiarias de Planeamiento vigentes, así como someter el expediente a información pública por el plazo de un mes, hecho que fue practicado mediante anuncio en el BOTHA nº 28 de 7 de marzo de 2011, en el periódico El Correo de 7 de marzo de 2011, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, y en los tablones de anuncios de las Juntas Administrativas de los Concejos del municipio, del 1 de marzo al 11 de abril de 2011.

Segundo.- Durante el período de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 5 de mayo de 2011 a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- El Ayuntamiento de Zigoitia remitió el expediente a la Diputación Foral de Álava para su aprobación definitiva, si procediese, donde tuvo su entrada el día 25 de mayo de 2011.

FUNDAMENTOS

Primero.- La modificación, promovida por la Junta Administrativa del Concejo de Ondategi y tramitada por el Ayuntamiento, tiene por objeto sustituir la calificación pormenorizada actual destinada al uso residencial de la parcela 915 del Polígono 2 del suelo urbano de Ondategi, propiedad de dicha Junta Administrativa, por la nueva calificación de Sistema Local para Equipamiento Comunitario.

Segundo.- La propuesta tiene su fundamento en que el uso real de la edificación existente es como Casa Concejo y Centro Social, y por ello, Equipamiento Administrativo y Cultural. Ello conlleva el adaptar las actuales condiciones de accesibilidad a los edificios, a lo dispuesto en el Decreto 68/2000 del Gobierno Vasco, las cuales no pueden cumplirse según los parámetros edificatorios de la ordenanza actual.

Tercero.- El adecuar la parcela a sus usos reales y permitir la reforma del edificio para adaptarlo a las nuevas necesidades dotacionales y a la normativa de accesibilidad vigente, merece una sanción positiva.

Cuarto.- El expediente, que se limita a modificar la ordenación pormenorizada del ámbito abarcado, ha sido tramitado según lo dispuesto en los artículos 95 y 96 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo y en el artículo 30 del Decreto 105/2008 de medidas urgentes en desarrollo de la anterior.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Zigoitia, referida a la parcela 915 del Polígono 2 de Ondategi.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrán interponer los particulares cualquiera de los siguientes recursos, sin perjuicio de cualquier otra medida que estimen procedente en defensa de sus intereses:

a) Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan. Horretarako, bi hilabete izango dira egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Nahi izanez gero, eta aipatutako errekurtsoa baino lehenago, interesdunek berraztertzeko errekurtsoa jar diezaiokete, edo beste administrazio batzuek errekerimendua, ebazpena eman duen organo berberari. Horretarako, hilabeteko epea izango da hura jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko ekainaren 16a.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Saileko Foru Diputatua, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

a) Directamente, el recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación del acto, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

b) Potestativamente y, con carácter previo al recurso citado, recurso de reposición por los interesados o requerimiento por otras Administraciones, ante el mismo órgano que ha dictado la resolución, en el plazo de un mes a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma.

Vitoria-Gasteiz, 16 de junio de 2011.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, IÑAKI NAFARRATE KORTABARRIA.

## Iragarkiak

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**3993**

**Ondare Eskualdaketa, Egintza Juridiko Dokumentatu eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko administrazio egintzak jakinaraztea. Zerrendan lehena: Abidin Moh Lamin, Ali Beiba.**

Administrazioari ez dagozkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezko izan da. Hortaz, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan xedatutakoaren ildotik, aipatutako artikuluak eskatzen dituen jakinarazteko ahaleginak egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo haien ordezkariei dei egiten zaie agertu daitezen eta zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo beren ordezkariek hamabost egun izango dituzte iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera agertzeko. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun Zuzendaritzako Ondare Eskualdaketa, Egintza Juridiko Dokumentatu eta Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren bulego kudeatzailean (Samaniego kalea, 14. Gasteiz) aurkeztuko dira, astelehenetik ostiralera 8:15etik eta 14:30era bitartean, zerga hori kudeatzen duen bulegoak izapidetutako prozeduren berri eman diezaien.

Agertzeko epea igaro, eta interesduna edo bere ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2011ko ekainaren 22a.– Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua, ANA Mª ZUBÍA AGUILLO.

| IFZ | IZENA/SOZIETATEAREN IZENA | PROZEDURA |
|---|---|---|
| 72844568-A | Abidin Moh Lamin, Ali Beiba | Likidazioa: TV-300664-2011 |
| 16237601-S | Amez Rodríguez, Mª Jesús | Errekerimendua |
| Y-0396720F | Benadda, Abdelkader | Likidazioa: TV-300705-2011 |
| X-8118788H | Berrabah, Bilal | Likidazioa: TV-300666-2011 |
| X-9949197H | Botiu, Bujor | Likidazioa: TV-300745-2011 |
| 16614106-X | Calvo Calvarro, Jonatan | Agiri eskaera |
| 72825907-H | Cano Yagüe, Ángel | Likidazioa: TV-300726-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300467-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300468-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300469-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300470-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300472-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300473-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300474-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300475-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Likidazioa: TV-300476-2011 |

## Anuncios

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**3993**

**Notificación de actos administrativos del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Sucesiones y Donaciones en relación que comienza por Abidin Moh Lamin, Ali Beiba.**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 108 de la Norma Foral General Tributaria de Álava (Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero), no siendo posible practicar la notificación por causas no imputables a la Administración y habiéndose realizado, al menos, los intentos de notificación exigidos por el citado artículo, por el presente anuncio se cita a los obligados tributarios o representantes que a continuación se relacionan, para ser notificados por comparecencia de los actos administrativos derivados de los procedimientos que figuran en la siguiente relación:

Los interesados o sus representantes deberán comparecer en el plazo máximo de 15 días naturales, contados desde el día siguiente al de publicación del presente anuncio en el BOTHA, en horario de 8,15 h a 14,30 h, de lunes a viernes, en la Oficina Gestora del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales, Actos Jurídicos Documentados y Sucesiones y Donaciones de la Diputación Foral de Alava, Dirección de Hacienda, c/Samaniego nº 14 de Vitoria-Gasteiz, al efecto de practicarse las notificaciones pendientes en los procedimientos tramitados por la citada Oficina Gestora del Impuesto.

Cuando transcurrido dicho plazo no se hubiera comparecido, la notificación se entenderá producida a todos los efectos legales desde el día siguiente al del vencimiento del plazo señalado para comparecer.

Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2011.– La Jefa de Servicio de Tributos Indirectos, ANA Mª ZUBÍA AGUILLO.

| N.I.F. | NOMBRE/RAZÓN SOCIAL | PROCEDIMIENTO |
|---|---|---|
| 72844568-A | Abidin Moh Lamin, Ali Beiba | Liquidación TV-300664-2011 |
| 16237601-S | Amez Rodríguez, Mª Jesús | Requerimiento |
| Y-0396720F | Benadda, Abdelkader | Liquidación TV-300705-2011 |
| X-8118788H | Berrabah, Bilal | Liquidación TV-300666-2011 |
| X-9949197H | Botiu, Bujor | Liquidación TV-300745-2011 |
| 16614106-X | Calvo Calvarro, Jonatan | Solicitud documentación |
| 72825907-H | Cano Yagüe, Ángel | Liquidación TV-300726-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300467-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300468-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300469-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300470-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300472-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300473-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300474-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300475-2011 |
| 44675224-R | Cerreduela Escudero, Jorge | Liquidación TV-300476-2011 |